

Atzo, 1.970 ikusle izan ziren saskibaloï-partida batean. Ikusle horietatik, 1.256 ez ziren bazkideak. Bazkideek 12 € ordaindu behar dute txartela. Zenbat diru bildu zuten bazkideen txartelen truke?

Enpresa batek 221 langile ditu, eta mediku-azterketa 13 egunean egin behar zaie. Zenbat langileri egingo zaie azterketa egun bakoitzean, egunero langile kopuru berari egiten bazaio?

Amaiak, baserrian, 207 arrautza bildu, eta dozenako ontzitan banatu ditu. Zenbat ontzi bete ditu? Zenbat arrautza geratu zaizkio ontzietan sartu gabe?

Merkealdietan, disko batek 17 € balio du. Haritzek 240 € dauzka eta diskoak erosi nahi ditu, bere bilduma osatzeko. Zenbat disko erosi ditzake? Zenbat diru geratuko zaio gastatu gabe?

Dantza-eskola batean 25 ikasle dabilta. Denek diru kopuru bera ordaintzen dute hilero, eta hilean 475 € ordaintzen dituzte guztien artean. Zenbat ordaintzen du ikasle bakoitzak?